



Nola erabili ene konposta ?

Konposta ondua bere itxura homogeneoarekin, kolore marroi ilunarekin, usain goxoarekin eta egitura pikortsuarekin ezagutzen da. Hasierako materia organikoak ez dira gehiago ezagutzen.

Arazo bakoitzak bere aterabidea !

Usain txarra – Gurintsua

Arazoa Hezeegi
Aterabideak materia idorrek gehitu (hosto idorrek, mozketa ttipiak, lastoa,...)

Lizun zuriak

Arazoa idorregi
Aterabideak urez aberats diren hondakinak gehitu (sukalde-hondakinak) edo ureztatu

Usteltze txarra

Arazoa kanpoko tenperatura hotzegi edo beroegi, airestapen eskasa, hondakin larriegiak
Aterabideak meta, hondakin idor geruza batez estali, materia egituratzaileak gehitu, hondakinak zatikatu

Eltxoak

Arazoa apairu hondarrak edo hondakin gozoak
Aterabideak hondakinak lurperatu edo hondakin-berde geruza batez estali

Euli beltzak

Arazoa haragi, arrain hondakinak
Aterabideak hobe horrelako hondakinak ez ezartzea, kaltegarriak erakartzen baitituzte

Ondu aitzin (3-4 hilabete)

Lur-estaltzez landare bizikorren eta zuhaixken oinetan.
Konpostak lurzoruko hezetasuna mantentzen du eta belar zikinen haztea mugatzen.

Ondurik (10-12 hilabete)

Loreontzietako lurra aldatzeko : konposta hiruetarik bat eta lurra/harea hiruetarik bi nahas itzazue.
Baratzean : lurra arintzeko, mendeagarri organiko bezala nahas dezakezue gain-azaleko lehen lur zentimetroekin.



ene konposta egiten dut gida praktikoa



Konposta egitea, prozesu natural bat

Konpostatzea prozedura natural bati esker egiten da, hondakin organikoak konposta deitu humusa bezalako produktu batetara transformatuz. Materia organikoa uraren eta airearen kontaktuan usteltzen da, milioika organismoen lanari esker (bakteriak, onddo mikroskopikoak, zizariak, kukurutxak,...).

Konposta egiteko materiala ongi erabili :

Konposta egiteko materiala non ezar : materiala ezar ezazue zuen baratzean, etxeari hurbil, errexki atzeman daitekeen leku batean, **lurrari kontra.**

Bio baldearen erabilpena : Bio balde bat proposatua zaizue sukaldean hartzituko diren hondakinak bereizten laguntzeko. **Erregulariki huts ezazue.**

Konposta egiteko urrezko arauak

Hondakinak alda itzazue :

Hostopilaren teknika balia ezazue
Hondakin ezberdinak bat bestearen gainean meta itzazue hauen arteko oreka on bat sortzeko :
- larriak eta finak
- idorrek eta hezeak

Zuen konposta airesta ezazue

Materia "larriak eta egituratzaileak" gehi itzazue hala nola adaxka batzu hondakinaren airestapena laguntzeko. Materia larriak bat bestearen barne nahasten dira eta hauen artean sortzen diren hutsgunei esker airea ibil daiteke.

Hezetasuna hurbiletik begira ezazue

Hezetasun gehiegik konpostaren airestapena tratatzen du. Alderantziz, hezetasun eskasak usteltze prozedura tratatzen du.



Zer konposta dezaket ?

Etxe-hondakinak :

- barazki eta fruitu azalak
- apairu-hondarrak (pastak, irrisa, ogia...)
- kafe hondoa bere iragazkiarekin, tea bere akutxoarekin,
- arroltze maskorrak leherturik


Baratze-hondakinak :

- hosto idorrak,
- lore eta landare orbelak,
- adaxkak,
- hazitu ez diren belar zikinak, lastoa,
- soropileko belardia baina kantitate ttipian,
- barazki zurtoinak eta hostoak.

Beste hondakinak :

- garbigarriak eta paperezko espainzapiak,
- kazetakiak,
- lurrustel zaharrak,
- hautsa.

Konpostatzailea zure etxe-hondakin organikoen tratatzeko egina da. Ez da baratze-hondakin kantitate handiendako egokia. Oroit zaitez horien ondarkintegira eramateaz. Ustelarazten daitezke ere meta bat eginez.



Konpostatzen ahal ez dudana

Mahaiko hondarrak :

- haragi eta arrain hondarrak (kaltegarrien urruntzeko),
- maskorrak,
- esnekiak / gantza.

Baratze-hondarrak :

- kimikoki artatu hondakinak
- landare larriegiak,
- landare eriak,
- hazitu belar zikinak,
- lurra, legarra, harea, harriak

Beste hondakinak :

- paper inprimatua, kolorezko aldizkariak, publizitate iragarkiak,
- irensgailu zakuak,
- zura,
- barbakoako ikatza, tximiniako kedarrea,
- xatarrak,
- etxe-abere kakak, inaurkinak,
- zigarrokinak,
- obra-hondakinak, igeltsuak

Oroz gainerik, ez da hondakin kutsagarriarik edo biodegradagarria denik ezarri behar (berinakia, metalezkoak, plastikozkoak, materia eta zuntz sintetikoak)

